

Berdintasunerako Zuzendaritzatik idazten dizut martxan jarri dugun ekimen baten berri emateko. Hilabete batzuk daramatzagu lanean, UPV-EHUko 30 bat irakaslek, ikaslek AZPko langilek, sindikatuetako ordezkarik eta kanpo aholkularik, aurreko ikasturtean osatu genuen talde misto batean, Unibertsitateko GENERO INDARKERIARI AURRE EGITEKO PROTOKOLO BERRIA eratzeko asmoz. Lan handia eta komplexua da gure gain hartu duguna eta, indarkeria matxitari aurre egitea guztierean erantzukizuna den heinean, zure laguntza eskatzen natorkiztu.

Udazken honetan, protokoloaren oinarria sendoa izan dadin, UPV-EHUko zentroetako irakasle, langile eta ikasleekin, ENTZUTE ETA PARTE HARTZE FASE bat irekiko dugu. Gure helburua, zentroetara hurbiltzea da eta Unibertsitate komunitatea osatzen dugun irakasle, langile eta ikasleekin solasaldi bat egitea, talde dinamika bat, gure taldeko bi adituren eskutik. Zentroetan egingo den dinamika honen helburua Unibertsitatea osatzen dugunok genero indarkeriaren inguruan ditugun kezkak, iradokizunak, zalantzak edo beharrizanak ezagutzea da. Zuek esateko daukazuena entzun egin nahi dugu eta horretarako zabaldu nahi dugu tarte hau. Guk gero, informazio horrekin, ahalik eta protokolo hurbil eta eraginkorrena eraiki ahal izateko.

Zure laguntza eskatzen dizut:

- talde dinamika aurrera eramateko egutegia adosteko
- dinamika egiteko toki aproposa aukeratzeko
- zentroa osatzen duzuen irakasle, ikasle eta langileak parte hartzena gonbidatzeko. Ezinbestekoa da.

Entzute eta parte hartze fase hau URRIAN eta AZAROA burutuko dugu. Laster jarriko naiz zurekin harremanetan zehaztasunak adosteko.

Eskerrik asko

Leioa, 2017ko irailak 12
Leire Imaz Zubiaur
UPV-EHUko Berdintasunerako Zuzendaria

Me dirijo a ti, desde la Dirección para la Igualdad al objeto de comunicarte una iniciativa que vamos a poner en marcha. Llevamos meses trabajando en la elaboración de un **NUEVO PROTOCOLO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO PARA LA UPV-EHU**, en un grupo mixto, de unas 30 personas, compuesto por personas que integran los diferentes colectivos de la Universidad: profesorado, alumnado, sindicados y PAS. Es una tarea ardua y compleja la que hemos asumido y, teniendo en cuenta que hacerle frente a la violencia machista, es responsabilidad de todas las personas que integramos la Universidad, me gustaría contar con tu colaboración.

Este otoño, con el objetivo de que la base del protocolo sea lo más sólida posible, abriremos una **FASE DE ESCUCHA Y PARTICIPACIÓN**. Nos acercaremos a los centros y organizaremos una dinámica grupal, a cargo de dos personas expertas de nuestro grupo, para conocer, de primera mano, las necesidades, dudas, propuestas o preocupaciones de las personas que integramos la comunidad universitaria (alumnado, profesorado y PAS). Consideramos que es esencial conocer la opinión de las personas que formamos la Universidad y para eso abriremos ese espacio. Nuestro grupo, con la información que recojamos, tratará de construir un protocolo lo más cercano y eficaz posible.

Cuento con tu colaboración para:

- consensuar el calendario para llevar a cabo la dinámica de grupo,
- escoger el espacio adecuado para desarrollar la dinámica grupal y
- fomentar la participación de las personas que integran tu centro, que por otro lado resulta del todo imprescindible.

Las dinámicas grupales las haremos en los meses de OCTUBRE y NOVIEMBRE. En breve, me pondré en contacto contigo para acordar los detalles.

De antemano, muchas gracias,

Leioa, a 12 de septiembre de 2017
Leire Imaz Zubiaur
Directora para la Igualdad de la UPV-EHU